

comgi



2020

URTEKO MEMORIA

GIPUZKOAKO SENDAGILEEN ELKARGO OFIZIALA
COLEGIO OFICIAL DE MÉDICOS DE GIPUZKOA

Elkargoa, zugandik hurbil



@comgipuzkoa



@comgipuzkoa



www.facebook.com/colegioelkargoa



<https://www.linkedin.com/company/10040220/admin/>



<https://www.youtube.com/c/COMGIPUZKOA>

GIPUZKOAKO SENDAGILEEN ELKARGO OFIZIALA

Frantzia hiribidea, 12
20012 Donostia (Gipuzkoa)

HARREMANETARRAKO

Bulegoa: 943 276 300 / Fax: 943 321 788
E-posta: info@comgi.eus

ORDUTEGIA

Astelehenetik ostegunera: 9:00 - 13:00h. eta
15.00 - 18.00h.
Ostiraletan: 8.30 - 13.30h.

UDAKO ORDUTEGIA

Astelehenetik ostiralera: 08:30-13:30 h. eta
asteazkenetan: 08:30-17:30 h.



GIPUZKOAKO SENDAGILEEN ELKARGO OFIZIALA
COLEGIO OFICIAL DE MÉDICOS DE GIPUZKOA

Frantzia hiribidea, 12, 20012 Donostia (Gipuzkoa)

info@comgi.eus

www.comgi.eus

Diseinu eta maketazioa: didart.eu

Donostia, 2021eko maiatza

ELKARGOKO LANGILEAK

Bulego teknikoa

Alberto Etxaburu
direccion@comgi.eus

Edurne Cristti
edurne@comgi.eus

Aiora Perdiguero
aiora@comgi.eus

Estibalitz Peña
estibalitz@comgi.eus

Aholkularitza Juridikoa

Jon Pellejero
jpellejero@comgi.eus

Komunikazioa

Ana Soro
prensa@comgi.eus

Fundazioa

Ortzi Balda
coordinador@comgi.eus

2020

URTEKO MEMORIA



AURKIBIDEA

Presidentearen agurra	3
Elkargoa	5
Datuak	8
Jarduerak	20
Fundazioa 2020ko Memoria	33

01

PRESIDENTEAREN AGURRA

PANDEMIAREN URTEA



Manuel García
Bengoechea

2020 urtea zeharo desberdina izan da. COVID-19ak eragindako osasun krisiak pertsona ororen bizitza aldatu du. Gure egunerokoa inoiz ez bezala eten da, eta askok are gehiago sufritu dute: euren bizitza profesionalaren etenaldia jasan dute eta ekonomikoki eta pertsonalki segurtasun eza ikaragarria bizitzen ari dira.

Gure profesioari, sendagileoi, protagonistak izatea tokatu zaigu. Eskatu eta desiratu ez dugun protagonismoa izan da, lehen lerroan egon zareten guztien etengabeko lana suposatu duena, horrek ekarri dizuen nekearekin. Pandemia honek gogor jo gaitu ia denoi.

Lerro hauek baliatuko ditut, beraz, eskerrak emateko, hilabete luze hauetan ia deskantsurik gabe lan egin duzuen lankide guztiei. Zuen lana oso beharrezkoa izan da ia guda baten antzekoa izan den eszenatokian; tamalez, oraindik ere beharrezkoak zarete denak. Mila esker denagatik. Go-goan izan nahi ditut, era berean, Covid-19aren kontra lanean hil diren sen-



Krisia hasi zenean, egoera berri batera izugarri bizkor moldatu behar izan genuen, zeinetan bilerak, formakuntzak, jarduerak... eten egin ziren, baina tramiteak, galderak, zalantzak, deiak biderkatu

dagileei, asko eta asko ospitale edo osasun zentroetan kutsatu baitira. Espero dut halako galerak ahalik eta gutxien gertatzea aurrerantzean.

Elkargoari dagokionez, pandemiak hankaz gora jarri du etxe honetako egunerokoa eta bere jarduerak. Krisia hasi zenean, egoera berri batera izugarri bizkor moldatu behar izan genuen, zeinetan bilerak, formakuntzak, jarduerak... eten egin ziren, baina tramiteak, galderak, zalantzak, deiak biderkatu. Elkargokideei laguntzea izan zen gure helburu nagusia.

Gobernu Batzordearen inplikazioa handia izan zen, baina, bereziki, etxe honetako langileen profesionaltasuna azpimarratu nahi dut. Ezinbestekoa izan da lan talde guztiaren konpromisoa eta egoera honi eman dion erantzun bikaina eta hala izango da hurrengo hilabeteetan ere.

Eskerrik asko denoi, egunero-egunero, medikuntzan ari garenen Elkargoa hau hobetzeagatik.

02

ELKARGOKIDETZA

EGITURA

GOBERNU BATZORDEA

Une honetan, ondoren-
go kideek osatzen dute
Gipuzkoako Sendagileen
Elkargoko Zuzendaritza
Batzordea:



Manuel García Bengoechea LEHENDAKARIA	Victor Irigoyen Murua DIRUZAINA/KONTULARIA	Ander Letamendia Loinaz BATZORDEKIDEA
Valentín Collado Espiga LEHEN LEHENDAKARIORDEA	Irune Alzola Elizondo BATZORDEKIDEA	Belén López Rubio BATZORDEKIDEA
Ignacio Eizaguirre Sexmilo BIGARREN LEHENDAKARIORDEA	Carlos Benito Gómez BATZORDEKIDEA	Xanthe Luna Harvey BATZORDEKIDEA
María Belén Alonso Macías IDAZKARI OROKORRA	María Emma del Campo Pena BATZORDEKIDEA	Iñaki Sanz Esquiroz BATZORDEKIDEA
María Aranzazu Elicegui Sarobe IDAZKARIORDEA	María Asunción Guerra Alonso BATZORDEKIDEA	Carmen Solórzano Sánchez BATZORDEKIDEA

BATZORDE IRAUNKORRA

LEHENDAKARIA: Manuel García Bengoechea
LEHEN LEHENDAKARIORDEA: Valentín Collado Espiga
BIGARREN LEHENDAKARIORDEA: Ignacio Eizaguirre Sexmilo
IDAZKARI OROKORRA: María Belén Alonso Macías
IDAZKARIORDEA: María Aranzazu Elicegui Sarobe
DIRUZAINA/KONTULARIA: Victor Irigoyen Murua



DEONTOLOGIA BATZORDEA

Aipatutako helburu horiek bete daitezen beharrezkoak diren txosten eta ikerketa guztiak eskuratuko dizkio Batzorde Iraunkorrek Deontologia Batzordeari, eta honek, txostenak eta ikerketak aztertu ondoren, bere konklusio eta ondorioen berri emango dio Gobernu Batzordeari. Hori izanik ere Deontologia Batzordearen egitekoa, alegia Gobernu Batzordeari aholku ematea, bere konklusioak eta irizpenak ez dira lotesleak izango Gipuzkoa-ko Sendagileen Elkarteko Gobernu Batzordearentzat.

Deontologia Batzordea hilean behin elkartzen da, dela medikuren baten kontra jarritako kexaren bat aztertzeko, edo baita Etika medikoarekin zerikusia duten gaiak jorratu eta azterketa horretatik ateratako ondorioekin dokumentu bat argitaratzeko.

2018ko irailean berritu zen Deontologia Batzordea, baina 2020. urtean bi kidek batzordea uzteko erabakia hartu zuten arrazoi pertsonalak direla eta. 2021 hasieran osatu da Batzorde berria.

Deontologia Batzordea osatzen duten kideak

LEHENDAKARIA: José Manuel Maiz Urretagoyena

IDAZKARIA: María Aranzazu Albisu Otaño

BATZORDEKIDEAK: Jaione Argaya Orbegoza, José Manuel Santos Zarza, M^a Angeles Zalakain Mendizabal, Lucrecia Martinez Cajé, M^a Montserrat Perez García


03

2020KO DATUAK

ELKARGOKIDETZEAK


ELKARGOKIDETZEAK (2020 / 12 / 31)

4.270




■ Emakumezkoak: 2.362 ■ Gizonezkoak: 1.908

LANEKO EGOERA



■ Jardunean
■ Jubilatuak
■ Langabezian

JARDUERA-MOTA




■ Medikuntza sektore publikoan
■ Medikuntza sektore pribatuan
■ Medikuntza mistoa

ESPEZIALITATEA	GUZTIRA		
Alergologia	€	9	18
	G	9	
Analisi Klinikoak	€	12	43
	G	31	
Analisi Klinikoak eta Biokimika klinikoa	€	0	0
	G	0	
Anatomia Patologikoa	€	12	26
	G	14	
Anestesiologia eta erreanimazioa	€	66	171
	G	105	
Angiologia eta kirurgia baskularra	€	10	16
	G	6	
Digestio-aparatua	€	30	68
	G	38	
Biokimika klinikoa	€	0	1
	G	1	
Kardiologia	€	43	59
	G	16	
Kirurgia Kardiobaskularra	€	5	6
	G	1	
Kirurgia Orokorra eta Digestio-aparatua	€	83	119
	G	36	
Ahoko Kirurgia eta Maxilofaziala	€	9	11
	G	2	
Kirurgia Ortopedikoa eta traumatologia	€	114	136
	G	22	
Kirurgia pediatrikoa	€	6	11
	G	5	
Kirurgia plastikoa, erreparatzailea eta estetikoa	€	11	21
	G	10	
Kirurgia torazikoa	€	8	8
	G	0	
Dermatologia Mediko-Kirurgia eta Benereologia	€	13	35
	G	22	

ESPEZIALITATEA	GUZTIRA		
Endokrinologia eta nutrizioa	€	8	26
	G	18	
Estomatologia	€	71	108
	G	37	
Farmakologia klinikoa	€	0	1
	G	1	
Genetika klinikoa	€	0	0
	G	0	
Geriatría	€	15	27
	G	12	
Hematologia eta hemoterapia	€	16	62
	G	46	
Hidrologia medikoa	€	0	3
	G	3	
Immunologia	€	3	4
	G	1	
Laneko Medikuntza	€	63	129
	G	66	
Gorputz-Hezkuntzako eta Kirol Medikuntza	€	28	35
	G	7	
Familia eta Komunitateko Medikuntza	€	297	956
	G	659	
Medikuntza fisikoa eta errehabilitazioa	€	17	49
	G	32	
Medikuntza Orokorra	€	420	1055
	G	635	
Akreditatutako Medikuntza Orokorra	€	5	12
	G	7	
Medikuntza Intentsiboa	€	27	59
	G	32	
Barne Medikuntza	€	116	187
	G	71	
Lege eta Auzitegi Medikuntza	€	5	9
	G	4	
Medikuntza Nuklearra	€	5	8
	G	3	

ESPEZIALITATEA	GUZTIRA		
Prebentzio Medikuntza eta Osasun Publikoa	€	12	24
	G	12	
Mikrobiologia eta parasitologia	€	10	24
	G	14	
Nefrologia	€	11	25
	G	14	
Neurologia	€	25	45
	G	20	
Neurokirurgia	€	14	17
	G	3	
Neurofisiologia klinikoa	€	5	8
	G	3	
Neurologia	€	35	56
	G	21	
Obstetrizia eta Ginekologia	€	54	152
	G	98	
Oftalmologia	€	43	80
	G	37	
Onkologia Medikoa	€	7	30
	G	23	
Onkologia Erradioterapikoa	€	13	24
	G	11	
Otorrinolaringologia	€	33	53
	G	20	
Pediatria eta bere esparru guztiak	€	81	244
	G	163	
Psikiatria	€	61	146
	G	85	
Haur eta nerabeen psikiatria	€	0	0
	G	0	
Erradiodiagnostikoa	€	64	121
	G	57	
Erreumatologia	€	13	22
	G	9	
Urologia	€	36	47
	G	11	

ELKARGOKIDETZEEN EBOLUZIOA, AZKEN HAMAR URTEOTAN (2010-2020)



2020KO ELKARGOKIDETZEETAN IZANDAKO MUGIMENDUAK

↑ **ALTAK: 285** ↓ **BAJAK: 148**

- Beste probintzia batera: **84**
- Atzerrira joateagatik: **20**
- Jarduera uzteagatik: **11**
- Hildakoak: **33**



OHOREZKO ELKARGOKIDE IZATEKO ESKAERAK: 84

2020AN HILDAKOAK:

- Jose Maria Gutiérrez Remon: 22/01/2020
- M^a CARMEN MANZANO PEREZ: 29/02/2020
- Benigno Oreja Del Rio: 22/03/2020
- Juan Carlos González Beneitez: 22/04/2020
- Ignacio Garcia Díaz : 07/05/2020
- Fausto Esteban Irazoqui Aranibar: 05/06/2020
- Jose León Navarro Armendariz: 06/06/2020
- Delfin Fernando Giménez Miguel: 10/06/2020
- Maria Nieves Goicoechea Elizondo: 12/06/2020
- Antonio Cabarcos Cazon: 19/06/2020
- Santiago Cárdenas Díaz De Espada: 20/06/2020
- Agustin Sánchez Martin: 25/07/2020
- Ignacio Uriarte Soriano: 09/08/2020
- Doroteo Arruebarrena Lizarraga: 15/08/2020
- Luis Irigoyen Atorrasagasti: 28/08/2020
- M^a Cristina Guedea Adiego: 30/08/2020
- Rosario Eizaguirre Garate: 27/07/2020
- Angel Benito Gutiérrez Manzanaz: 20/09/2020
- Mikel Barriola Echeverria: 03/10/2020
- Carlos Zulueta Guridi: 06/10/2020
- Ramón Mora Fernandez: 22/10/2020
- Enrique Sologaitua Cendoya: 06/11/2020
- Jesús Bengoechea Damborenea: 08/11/2020
- Lucia Galparsoro Labayen: 09/11/2020
- José Ruiz De La Hermosa Sosa: 01/11/2020
- Máximo Goicoechea Ferrero: 13/11/2020
- Juan M^a. Ulloa Ciriano: 19/11/2020
- Jose Luis Mayoral Miravete: 22/11/2020
- Jesús Algaba Guimera: 25/11/2020
- Juan Ignacio Alberdi Urcelay: 12/11/2020
- Izaskun Echechipia Goiburu: 15/12/2020
- Luis Miguel Busselo Lete: 21/12/2020
- Jaime Latasa Nuin: 24/12/2020

ELKARGOKO KUOTA

Urte dezentetan kuota mantendu egin den arren, Gobernu Batzordearen erabakiz 2020 urtean kuota modalitate guztietan 4 euroko igoera ezarri zen:

Kuota orokorra (hiruhilekoan)	64 €
MIR KUOTA, karrera amaitu eta ondorengo lau urteetan	32 €
Ohorezko elkargokide kuota. hiru hilero (hautazkoa). Onurak: Zure familiak onura ekonomikoa izango du zu hiltzen zarenean.	14 €
Bazkide babeslearen kuota (hautazkoa): hiru hilero. Babes Sozialerako OMC-ren Fundazioa Espainia mailako sendagileen elkartasunerako organoa da. Kuota hau ordainduz, behar bereziak dituzten sendagileek laguntzak jasotzea ahalbidetzen duzu, eta, era berean, inoiz zuk ala zure familiak beharrik izango balu, fondo honen onuradun bihurtuko zara.	23,77 €

ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

2020 urtean A.M.A.-ko poliza berdin mantendu da, kontratua amaitzen den urtea izanik.

- 2020ean aseguruaren duteen sendagileak: **2.719**
- Abenduaren 31 arteko bajak: **512**
- Altak edota estalduraren zabaltzea: **209**

SENDAGILEAREN EGUNA 2020

Osasun krisia dela eta, aurten ezin izan da Sendagilearen Eguna ohi bezala ekitaldi batean ospatu, ez eta ondoren egin izan dugun afaria ere. Ekitaldi jendetsuak saihestu badiugu ere, ohorezko sendagile orok merezitako omenaldia jaso du aurten ere: Gobernu Batzordeko ordezkarien eskutik, Elkargoan harrera egin zieten bakoitzari eta ohiko opariak jaso zituzten: ohorezko sendagilearen diploma eta domina. Aurten, gainera, Donostiako Saltxipi jatetxean euren kabuz ospatzeko bono bikoitza ere eman zaie.

Hortensia Rubio Carrera Ohore Gorenezko Sendagileak ere jaso zuen omenaldi beroa. Elkargora hurbildu zen arratsalde batean bere senitartekoekin eta Elkargoak sortu berri duen Iñigo Aristegi artistaren eskultura jaso zuen: obra honek gaixo eta sendagilearen arteko harremana goraiatzeko du, ukitzen diren bi eskuen bitartez.



2020 OHOREZKO SENDAGILEAK

- Benito Luis Navajas Cardenal
- Ignacio Bidegain Alberdi
- Iñigo Elosegui Albea
- Maria Isabel Arcelus Celaya
- Víctor Manuel Aramburu Soraluze
- Jose Maria Fernandez Goenaga
- Luis Fernando Alzate Saez De Heredia
- Iñigo Galarraga Ibarrolaburu
- Mercedes Juaristi Mendiola
- Jose Pedro Meyer Pohlmann
- Teodoro Maria Ortiz De Artiñano Kutz
- Adriana Ayala Gil
- Jose Manuel Merino Nazabal
- Jose Ignacio Zudaire Albeniz
- Jose Miguel Yetano Laguna
- Francisco Javier Labayen Berdoces
- Jon Mikel Orkolaga Echaniz
- Maria Del Coro Florez Arabaolaza
- Jose Maria Echeveste Inzagaray
- Roberto Casado Urigüen
- Maria Consuelo Francisco Martin
- Enrique Laguarda González
- Jose Antonio Amondarain Arratibel
- Francisco Javier Garcia Chivite
- Humberto Tobalina Vitini
- Lucia Zubimendi Alcorta
- Francisco Javier Irazusta Goena
- Pedro Ángel Hueso Abancens
- Maria Victoria Murga Merino
- Maria Asunción Echeveste Gutiérrez
- Manuel Javier Alonso Herrero
- Maria Teresa Monasterio Anton
- Jon Mirena Amilibia Urcelay
- Alejandro Olondris Ibañez
- Jose Ignacio Aldanondo Ugalde
- Maria Del Carmen Rengel Sala
- Francisco Javier Martinez De Lizarduy Alvarez
- Eduardo Utrilla Rico
- Ana Maria San Vicente Leza
- Mercedes Urbieta Egaña
- Maria Del Pilar López López
- Ángel Benito Gutiérrez Manzanar
- Francisco Hormaza Eguskiza
- Francisco Javier Recio San Pedro
- Félix Bereciartu Ibarguchi
- Miren Garbiñe Múgica Arrieta
- Juan Jose Satrustegi Galdona
- Sabino Aguirregomezorta Ortuzar
- Maria Isabel Roca Lorente
- Eduardo Alfonso Elosegui López- Quintana
- Albar De Eguileor Gurtubay
- Leonor Arranz Arana
- Maria Asunción Suñol Y De Amilibia
- Rafael Gaytan De Ayala Diez De Rivera
- Jesús Ojanguren Ulacia
- Carmen Marti Amiguet
- Maria Isabel Benito Goicoechea
- Leonardo Ricardo Barrenechea Suso
- Manuel Sánchez Montero
- Jesús Belloso Balzategui
- Gabriel Elorriaga Ameyugo
- Jesús Gomez Montoya
- Sabino Echaniz Aramberri
- Jesús Maria Guisasola Garechana
- Francisco Javier Oñativia Bagues
- Maria Victoria Bravo Albizu
- Pilar Iribar Biain
- Maria Elena Lopez De Sandaliano Fernandez
- Enrique Uribe-Echevarria Martinez
- Trinidad Cornellana Puigarnau
- Juan Jose Goiti Unibaso
- Norma Graciela Ormaechea Riveros
- Herve Joly

04

2020KO JARDUERAK



ELKARGOKIDEARI ARRETA

Osasun krisialdiak bete-betean eragin zuen Elkargoan eta eguneroko jarduera asko bertan behera gelditu behar izan ziren. Lan taldearen lehentasun nagusia elkargokideei laguntzea izan zen hasierako hile horietan, aholkularitza emanez eta behar zituzten tramiteak erraztuz.

Eusko Jaurlaritzak martxoaren 13an deitu zuen osasun alerta-egoera. Egun bat beranduago, martxoaren 14an, Espainiako Gobernuak Alarma Sanitario egoera deitu eta herri-tarren konfinamendua agindu zuen.

Elkargoko bulego teknikoak martxoaren 18ra arte lanean egon zen modu presentzialean, baina martxoaren 23an ateak itxi zituen eta zerbitzua modu telematikoa ematen hasi zen. Urteak dira Bulego birtuala martxan dela eta horri esker elkargokideek tramite asko burutu ahal izan zituzten inolako arazorik gabe. Presentzia fisikoa eskatzen zuten zenbait tramite berehala moldatuak izan ziren modu telematikoa aurreratu edo burutu ahal izateko.

Maiatzaren 11n Elkargoak ateak ireki zituen berriro, elkargokideei arreta ematen jarraitzeko, hori bai, aurretiko zitarekin. Bulegoa eta espazioak segurtasun neurrien arabera moldatuak izan ziren, erabiltzaileak nahiz langileak segurtasun osoz aritu ahal izateko.

BULEGO TEKNIKOAREN MUGARRIAK

1. Kuotak

Apirilaren 1n elkargokidetzaren kuoten ordainketa etetea erabaki zuen Elkargoak, osasun krisiaren testuinguruan, elkargokideentzat lagungarri izan zitekeelakoan. Kuota horiek pandemiako lehen hilabete horiek pasa zirenean kobratu ziren.

2. Doako elkargokidetzak

Eusko Jaurlaritzaren Osasun Kontseilaritzarekin koordinatuta, Osakidetzara errefortzu bezala sartu ziren sendagileen elkargokidetzak dohainik egin zen.

3. Covid-19aren aurkako boluntario langileak

Pandemiak eragindako egoera jasangaitzaren aurrean, asko izan ziren Elkargora deitu eta bolondres lan egiteko prest azaldu ziren sendagileak. Horiekin zerrenda bat osatu zuen Elkargoak: guztira 191 pertsonak izena eman zuten.

4. BAME 2020

2020 urtean, uztailean banatu ziren BAME azterketa osteko egoiliar plazak. Horren eraginez, elkargokidetze berriak iraila eta urrian egin ziren. Prozesuaren zati han bat Bulego Birtualaren bitartez egin ahal izan zuten, beraz, oso denbora gutxi pasa behar izan zuten Elkargoan.



AHOLKULARITZA JURIDIKOA

Krisialdiak eragin nabarmena izan du aholkularitza juridikoan. Pandemiak eragindako egoera berriak zalantza pila sortu ditu aurren elkargokideengan, batik bat, COVID-19aren eta lan egoerarekin loturikoak.

Jasotako kontsulten bolumena ia hiru-koiztu egin zen pandemiako lehen hilabeteetan eta bost hilabete baino gutxiagoko epean 2019 guztian jasotako adina kontsulta jaso ziren.

ELKARGOKIDEEN KONTSULTAK

	JASOTAKOAK	BIDALITAKOAK
MARTXOA	269	119
APIRILA	538	209
MAIATZA	319	136
TOTALA COVID-19	1126	464

BESTE URTEEKIN ALDERAKETA		
TOTALA COVID-19	1126	464
TOTALA 2020	1483	625
TOTALA 2019	1463	635

Kontsulten gaiari dagokionean, hurrengo taulan jaso dira argitu behar izan diren gaiak:

OSASUN PRIBATUKO SENDAGILEAK ETA EUREN KABUZ ARI DIRENAK:

- Kontsulta pribatuen derrigorrezko itxieraren ingurukoak.
- Kontsulta pribatuetan gaixoak atenditzeko arrazoi justifikatuak.
- Gaixoak kontsultetara joan ahal izateko ziurtagirien inguruan.
- Legalki arazoak ez edukitzeko hartu beharreko neurriak: gaixo nahiz kontsultetako langileekin.
- ERTE-en ingurukoak.
- ERTeA aplikatu zaien sendagileen zalantzak.
- COVID-19 frogak osasun pribatuan egiteko preskripzioaren ingurukoak.
- Telemedikuntza.
- Kontsultak berriz irekitzeari buruzkoak

OSAKIDETZAKO SENDAGILEAK

- Babes neurrien falta: Covid-19arekin kutsatutako gaixoeekin egondako profesionalen material eza, detekzio frogen falta, eta abar.
- Covid-19arekin kutsatutako gaixoen arreta, pertsona zaurgarriak direnean.
- Telemedikuntza.
- Orduen neurketa, antolaketan egin diren aldaketak kontuan izanik.
- Txanda aldaketak
- Oporren ingurukoak, Osakidetza egindako komunikazio baten ostean.



2020 URTEARI BURUZKOAK

2020 urtean Covid-19a izan da protagonista nagusia zentzu guztietan. Hori horrela, ez da aurreko urteetako datuen azalpena egin eta krisialdiarekin zer ikusia izan duten gai nagusiak azaltzeari eman zaio lehentasuna.

Prozesu judizial eta erreklamazio asko eta asko bertan behera gelditu dira edota atzeratuak izan dira. Epaiketa-eguna jartzeko ere arazoak egon dira eta zenbait prozedimendu judizial 2022ra atzeratuak izan dira.

Elkargoan bertan egin direnen inguruan, saiakera handia egin da elkargokideen zalan-tzak eta arazoak modu telematikoan erantzuteko: 370 kontsulta fisikoetatik 180ra jaitsi da. Kontra, kontsulta telefonikoak asko igo dira: egunero 2,5etik 4ra. Berdina gertatu da posta



Erantzukizun zibil medikoarekin lotutako prozedimenduetan sendagileari eskatutako kantitateak igo egin direla nabarmen: 300.000 gorako erreklamazioak eskatu dira

elektroniko bidezko kontsultekin: bikoiztu egin dira aurretik.

Azkenik, esan beharra dago erantzukizun zibil medikoarekin lotutako prozedimenduetan sendagileari eskatutako kantitateak igo egin direla nabarmen: 300.000 gorako erreklamazioak eskatu dira. Honek frogatzen du Elkargoak erabaki zuzena hartu zuela erantzukizun zibileko aseguruaren zenbateko minimoa igo zuenean.

KOMUNIKAZIOA

Elkargoko komunikazio departamentuak lehen aldiz otsailaren 5ean eman zuen koronabirusaren berri bere Elkargoaren Begirada / El vistazo del Colegio buletinean, Elhuyar Aldizkarian argitaratutako albiste baten bitartez. Wuhan-en (Txina) hasitako birusaren kutsatzea nazioartean zabaltzen hasia zen eta galdera asko airean baziren oraindik, informazioak ugariak eta baita nahasgarriak ere izaten hasi ziren.


Otsailaren 26an, buletin berean, Eusko Jaurlaritzako Osasun Departamentuko zenbait gomendioren berri eman zen, eta martxoaren hasieran ere Covid-19aren bilakaeraren inguruko albisteak bidali zen.

Horiek izan ziren pandemiaren hasierak, hain zuzen, Elkargoko komunikazio departamentuari deskantsurik gabe lan egitea eragingo zion krisialdiaren jaiotza. Estres eta ezjakintasun handia zegoen unean, helburu nagusia informazio kontrastatua eta zientifikoa ematea izan da.

MUGARRI NAGUSIAK

1. COVID-19 Boletin berezia

Koronabirusaren inguruko informazio ugaria kontuan izanik eta erraz zabaltzen hasiak diren albiste faltsuak saiheste aldera, Elkargoak buletin berezia sortzen du elkargokideei informazio ofizialak helarazteko asmoz, batik bat, euren egunerokoan baliagarriak izango direnak.



2. COVID-19 web atal berria

Martxoaren 16an webgunean atal berria irekitzen da; bertan, elkargokideentzat interesgarria izan daitekeen informazio gaurkotua eta egiazkoa ematen da. Egutero-egutero gaurkotzen joan zen atal hau, batik bat, pandemia hasi eta lehen hilabeteetan.

Modu berean, Medikuen Ahotsa Aldizkarian ere atal berria ireki zen COVID-19arekin zer ikusia zuten albiste, artikulua eta elkarriketak jasotzen joateko.

3. Sare sozialen dinamizazio etengabea

Sare sozialek oso paper garrantzitsua izan zuten pandemiako lehen hilabeteetan, izan ere, kanal azkarrena izan dira informazio gaurkotua elkargokideei helarazteko orduan. Elkargoko beste kanalekin batera (emaila, telefonoa, webgunea) ezinbesteko informazio iturri izan dira aurren.



4. Hedabideetan parte hartzea

Elkargoa eta bere Gobernu Batzordeak oso garbi izan dute hiritarrekiko konpromisoa, baita elkar-gokide askok eta askok egin duten esfortzu eta lan bikaina pandemiari aurre egiteko. Hori horre-la, 2020 urtean hedabideetan presentzia handia izan du Elkargoak, gehienetan presidentearen hitzekin: elkarrizketak, komunikatuak, iritzi art-ikuluak... Helburu nagusia sendagileen ahotsa hiritarrei helaraztea izan da.



2020eko komunikatu eta artikulu azpimarragarrienak:

- [El Colegio de Médicos de Gipuzkoa se opone a la prórroga de los contratos MIR y pide que sean contratados como especialistas](#)
- [El Colegio de Médicos de Gipuzkoa segunda el comunicado conjunto de los Consejos Generales de Dentistas, Enfermeros, Farmacéuticos, Médicos y Veterinarios entorno al nuevo protocolo de actuación](#)
- [Los Colegios sanitarios de Gipuzkoa consideran el nuevo protocolo de actuación frente al coronavirus un riesgo para la seguridad de profesionales y pacientes](#)
- [El Colegio aplaude la decisión tomada de evaluar a los MIR en mayo](#)
- [El Colegio de Médicos de Gipuzkoa segunda el Comunicado del CGCOM sobre las Certificaciones de Defunción en general y en los casos con Covid-19](#)
- [El Colegio de Médicos de Gipuzkoa se suma al descontento general tras la publicación del Real Decreto Ley 29/2020 de 30 de septiembre](#)
- [Hay que aguantar el pulso aún // Pultsuari eutsi behar diogu oraindik](#)
- [No más piedras en el camino](#)
- [Postura del Colegio de Médicos sobre la petición de dimisión de Fernando Simon, director del de Coordinación de Alertas y Emergencias Sanitarias](#)
- [Entrevista al presidente y la vocal de Atención Primaria del Colegio sobre la situación de los profesionales en AP](#)

"GABON HAUETAN, EZ DADILA BIRUSA ZURE ETXEAN SARTU" KANPAINA

Urte amaieran sentsibilizazio kanpaina abian jarri zuen Elkargoak, ondorengo lelopean: "Gabon hauetan, ez dadila birusa zure etxean sartu". Herritarrek gabonak ahalik eta modu seguruenean igarotzea bilatzen duen kanpainak eta horretarako zenbait gomendio zabaldu ziren: zehazki gomendioen dekalogo bat sortu zen eta zenbait egunkarietan ez ezik sare sozialen bitartez zabaldu zen.



Ikus kanpaina



ELKARGOKO MUGARRIAK

ESEK-ko egoitza eta presidentzia Elkargoaren esku

Manuel García Bengoechea Elkargoko presidentea Euskadiko Sendagileen Elkargoaren Kontseiluko presidentzia hartu zuen 2020 urte hasieran, bi urtetarako. Hala, Arabako Elkargoko presidentea den Kepa Urigoitiari erreleboa egiten dio. García Bengoecheak bide beretik lan egingo du Kontseilua dinamizatu eta Euskadiko sendagile guztien ordezkari den organo hau indartzeko. Webgunea: www.ccmpv.eus



Elkargoa medikuntzako ikasleei gerturatu nahian

Manuel García Bengoechea, Elkargoko presidentea, eta Iñaki Eizaguirre, COMGI Fundazioako presidentea, OSI Donostialdeak antolatutako informazio saio batean parte hartu zuten urte hasieran, 5º eta 6º urteetako medikuntza ikasleei Elkargoa zertan datzan azaltzeko. Bi presidenteek elkargokide izatearen garrantzia azpimarratu eta medikuen jarduerarekin zer ikusia duen prozesuen aurrean Elkargora jo dezaketela gogorarazi zieten etorkizuneko sendagileei. Elkargoa gertutik bizi eta eskaintzen dituen jarduera guztiak ezagutzera ere animatu zituzten, batik bat, Fundazioak antolatzen dituen formakuntzarekin lotutakoak.



Bigarren Biktuari laguntzeko programa

Urte hasieran Elkargoak Bigarren Biktuari Laguntzeko Programa jarri zuen abian. Programa horren bidez, kaltetutako profesionalei lagundu nahi zaie kontrako gertaera baten ondorioei aurre egiten, eta laguntza eman nahi zaie, bai lanaren ikuspegitik, bai ikuspegi juridikotik eta emozionaletik, haien bizitza pertsonala eta profesionala lehenbailehen normalizatu ahal izateko. Laguntza hori eskaintzeko Getaria 20 Psikiatria eta Psikologia zentroarekin akordioa sinatu da. ([Informazio guztia hemen](#)).


Mutual Médica-rekin akordioa

Elkargoak elkarlanerako hitzarmena sinatu zuen 2020ean Mutual Médica Fundazioarekin, elkargokideen formakuntzarako programa berezia abian jartzeko. Programa honi esker, medikuntzarik haratago interesgarriak diren tailer eta ikastaroak antolatuko dira, esaterako, komunikazioa nola hobeto, albiste txarrak nola eman, emozioen kudeaketa egokia edota etikarekin loturikoak. Hitzarmen hau Fundazioak dagoeneko martxan duen formakuntza programa zabalari gehitzen zaio.



Aubixa Fundazioarekin hitzarmena

Elkargoak eta Aubixa Fundazioak kolaborazio hitzarmena sinatu zuten 2020 urtean, zahartzearen erronkari aurre egin eta horrekin lotutako gaiak zabaltzeko. Hitzarmen horren baitan, bereziki, Alzheimerra eta beste gaitz batzuk dituzten pertsonen bizi kalitatea hobetzea bilatuko da. Akordioa Elkargoko presidenteak, Manuel Garcia Bengoechea, eta Aubixako presidenteak, José Félix Martí Massó, sinatu zuten.



Jarduera presentzialen etetea

Gobernu Batzordeak, osasun gomendio ofizialei jarraiki, formakuntzako jarduera presentzial guztiak eten zituen apirilean. Egun batzuk berandua-go, bestelako ekintzak ere bertan behera gelditu ziren: Ohiko Batzar Nagusia, Osasuna&Zinema haur ikasgela, Senior Medikuntza Ikasgela eta

musikako proiektzioak. Elkargoko aretoan halako ekintzarik ez ospatzeko erabakia urte amaierara arte mantendu da, denon segurtasunerako. Bide beretik, 2020ean ez dira elkargoko ekitaldi ofizialak ospatu, hala nola, Sendagilearen Eguna edota MIRei ongietorria.



ORGANIZACIÓN
MÉDICA COLEGIAL
DE ESPAÑA



FUNDACIÓN PARA LA
PROTECCIÓN SOCIAL

BABES SOZIALERAKO OMC FUNDAZIOA

Babes sozialerako OMC-ren Fundazioa Espainia mailako sendagileen elkartasunerako organoa da. Bere helburua kolektiboaren baitan behar gehien duten lankideei askotariko laguntzak eskaintzea da: asistentzialak, dependentziarako laguntzak, desgaitasunekin loturikoak edota osasun edo kontziliatorako laguntzak.

Fundazio honen bitartez, behar gehien dituzten elkargokide nahiz senitartekoei laguntzak eskaintzen dizkie.

Gipuzkoan 2.701 sendagilek ordaintzen dute Fundazio hau bizirik mantentzeko hautazkoa den kuota. Hori esker, 262.579,28 euro biltzen dira eta ondorengo laguntzak eman ditzakegu:

Gipuzkoako sendagileren 13 umezurtzek jasotzen dute laguntza, zehazki, 51.298 euro guztira. Bi laguntza daude sendagileen seme-alabak izan direnentzat: 21 urte baino gutxiagokoentzat diru-laguntzak eta adin hori pasata ere ikasten jarraitzen dutenentzako diru-laguntzak. Lehen motakoa 11 gaztek jaso zuten (3.670 euro bakoitzak batez bestez, guztira 44.040 euroko poltsa) eta bigarren motako laguntza 2 gaztek jaso dute ikasketa beka gisa (7.258 euro).

Bestalde, laguntza asistentzialak era eman dira 95.304.84 euroko balioa izan dutenak. Hauek dira:

- Desgaitasuna duten 7 umezurtzek 45.864 euro jaso dute guztira.
- Desgaitasuna duten 3 sendagilek ere laguntza jaso dute, 21.625,08 euro guztira.
- Erretiroa hartu duten 3 sendagile, 24.860,76 euro guztira.
- Alargun batek 2.955 euroko laguntza jaso du.

Fundazioaren kuota hau hautazkoa denetik, elkargokide batzuk baja eman dute eta elkargokide berriek, gehienetan, ez parte hartzea erabakitzen dute. Hori dela eta, azken 3 urteetan nahiko jaitsi da laguntzetara bideratutako dirua.

Gipuzkoako Sendagileen Elkargotik azpimarratu nahi dugu 100 urte baino gehiago dituen Fundazio honen parte izatea abantaila handia dela guztientzat, norberaren ekarpen txikiarekin sendagile lankideei laguntzeaz gain, zerbait gertatuz gero elkargokideak berak nahiz bere senitartekoei laguntza jasoko dutelako. Informazio guztia hemen: <https://www.fpsomc.es/>

Koronabirusaren Krisiaren aurrean Laguntza Psikologikoa emateko Programa

Programan sartzen diren medikuek beren lana baldintza onenetan egin ahal izatea eta Estres Posttraumatikoaren Nahasmendua prebentzeko beharrezko tratamendua jasotzea dira programaren helburu nagusiak. Erresilientzia areagotzeko baliabideak garatzea da egiten den lanaren oinarria, banakako eta laguntza psikologiko espezifikoak bermatuz eta krisi-egoerari aurre egiteko baliabideak emanez. Informazio guztia [hemen](#).



Urtea amaitu baino lehen, sendagile gazteen batzordekide den Xanthe Luna Harvey-ek gipuzkoar egoiliarrei zuzendutako online inkesta bat abian jarri zuen. COVID-19ak euren formakuntzan nola eragiten ari den ezagutzea zen inkestaren helburua. Horretarako, galdera ireki nahiz itxiak planteatu ziren (adibidez, eskala moduko galderak planteatuz) eta sendagileek euren testigantzak utzi ahal izan zituzten. Galdera orokorrak izan arren, egoiliarren urteen arabera banatuta zegoen, emaitzak taldeka ere jaso ahal izateko. Inkestak utzi zuen argazkia Medikuen Ahotsako artikulua honetan irakur daiteke.



(artikulua irakurri)





COMGI FUNDAZIOA



Fundazioa

GIPUZKOAKO SENDAGILEEN ELKARGO OFIZIALA
COLEGIO OFICIAL DE MÉDICOS DE GIPUZKOA



D. Ignacio Eizaguirre
Sexmilo

AURRERA JARRAITZEN DUGU

Pandemiak zuzenean eragin dio Fundazioaren 2020. urteko jarduera eskaintzari. 2019an egindako bidea eten egin da eta ezinezkoa izan da jarduera presentzialak aurrera eramatea martxotik aurrera, osasun krisiaren erruz. Gainera, gure sendagileen esfortzua SARS-CoV-2 birusaren aurka lan egitera zuzendu da erabat.

Hala eta guztiz ere, formakuntzako 14 jarduera egitea lortu dugu (5 presentzialak eta 9 online) eta 680 elkargokidek parte hartu dute horietan. Azpimarratu beharra dago, baliabide teknologikoak egoera berrira egokitzeko esfortzu handia egin dela eta, horri esker, streaming bitartez eskaini ahal izan dira ikastaro eta jarduera ugari, oso erantzun ona izan dutenak.

Bestalde, pandemia egoeran gauden arren, urtero bezala 5 sari banatu ditu Fundazioak eta lankidetzak eta garapenerako proiektuei ere diru-laguntzak banatu dizkie, pasa den urteko diru kopuru antzekoa banatuz proiektu onuradunei. Azkenik, bizitza aseguruaren bitartez ere hildako 33 lankideren senitartekoei diru-laguntzak banatu zaizkie.

Ikerketarako bekak, ordea, atzeratzea erabaki zuten Fundazioak eta Biodonostia Institutuak eta 2020ean eman ez diren bi bekak 2021ean emango dira.

2021. urterako gure helburua streaming bidezko jarduera formatiboei eustea da: modalitate honek ate asko irekitzen dizkigu eta horiek denak aprobetxatuko ditugu osasun egoera honek jarraitzen duen bitartean. Hala ere, ahal den bezain pronto jarduera presentzialak ere berreskuratzea dugu helburu. Gainera, zuzen jarduerak urtero bezalaxe jarraituko dute. Fundazioak konpromiso irmoa du sendagileen formakuntza bultzatu eta indartzearekin eta Elkargoko jarduerak garrantzitsuenetakoa dela uste du.

Urtero bezalaxe, zuen interesekoak diren gaien proposamenak egitera animatzen zaituztegu baita horien inguruan prestakuntza eskaini dezaketen pertsonen buruzko gomendioak ere.

AURKEZPENA

COMGI Fundazioa irabazi-asmorik gabeko antolakundea da eta 2011. urtean sortu zen El-kargoaren ekimenez. Elkargoaz kanpoko bi patronoren (AMAre eta BANKOAre) ekarpenei esker finantzatzen da bere osotasunean.



HELBURUAK

Fundazioak hainbat alderdi jorratzen ditu bere izaeragatik: ongintza, asistentzia, osasungintza eta heziketa, bere onuradunen, alegia, Gipuzkoa-ko mediku elkargokideen premia eta beharrian berehalakoenak eta oinarritzkoenak asetzerari bideratuta betiere.

Zehazkiago esateko, hauek dira bere helburuak:

- Medikuei elkargokide guztiei zuzendutako trebakuntza jarduerak sustatu, kudeatu eta koordinatzea gure lurraldean.
- Gizarte-laguntza sustatu, bideratu, bultzatu eta finantzatzea. Horretarako, dohaintzak eta diru-laguntzak ematen zaizkie medikuei alargunei eta seme-alabei, eta bekak eta laguntzak eskaintzen zaizkie medikuei nahiz medikuei umezurtzei.
- Osasun-gaietan trebakuntza eta informazioa zabaltzeko aukeran dauzkagun baliabideak eta ezagutza guztiak herritarren eskura jartzea.

EGITURA

Ondorengo egitura du gaur egun COMGI Fundazioak:

PRESIDENTEA: Ignacio Eizaguirre Sexmilo Jn.

PRESIDENTEORDEA: María Belén López Rubio And.

IDAZKARIA: Belén Alonso Macías And.

DIRUZAINA: Victoriano Irigoyen Murua Jn..

BATZORDEKIDEA: María Aranzazu EliceGUI Sarobe And.

BATZORDEKIDEA: Carol Julyssa Cobian Malaver And.


BATZORDEKIDEA: Jose Javier Korta Murua Jn..

JARDUERAK



FORMAKUNTZAK

Elkargoko Fundaziotik antolatzen dira Gipuzkoako Sendagileen Elkargoak martxan jarritako trebakuntzako ikastaro gehienak. Aurten, jarduera presentzial guztiak bertan behera gelditu ziren martxoan eta urrian martxan jarri ziren arren online formatuan bakarrik egin ahal izan dira. Beste urte batez ere jarduera guztiak doakoak izan dira elkargokideentzat eta ikastaro asko akreditatuak izan dira Eusko Jaurlaritzarengatik.





FORMAKUNTZA PRESENTZIALA

TALLER DE RCP Y DESFIBRILACIÓN (1 edizioa)

Arduraduna: Cristian Fernández Barreras
Hizlariak: Emergentziak Osakidetza
Data: Urtarrilak 13 (arratsaldez) /Urtarrilak 15
(goizez)
E.J. Kredituak: 0.6
Izen-emateak: 24 arratsaldez / 24 goizez
Asistentzia: %96 arratsaldez/ %83 goizez

CUATRO VISIONES DEL TRASTORNO DE DÉFICIT DE ATENCIÓN CON HIPERACTIVIDAD (TDAH)

Arduraduna: Dr. Pedro Gorrotxategi
Hizlariak: Miguel Moreno, Itxaso Martí, Juanxo
Núñez, Ángel Ruiz eta Pedro Gorrotxategi
Data: Urtarrilak 23 (arratsaldez)
E.J. Kredituak: 0.5
Izen-emateak: 93
Asistentzia: %91

PRIMERAS JORNADAS DE ACTUALIZACIÓN EN REPRODUCCIÓN ASISTIDA PARA MÉDICOS DE ATENCIÓN PRIMARIA

Arduraduna: Miren Mandiola y Koldo
Carbonero
Hizlariak: Felipe Atutxa, Lorena Rodríguez,
Katrín Palacín, Maitena Soubelet, Ysmael
Álvarez, María Estomba, Vicenta Giménez,
Mirian Mandiola eta Koldo Carbonero
Data: Otsailak 10 (arratsaldez)

Izen-emateak: 20
Asistentzia: %85

TALLER DE RCP Y DESFIBRILACIÓN (2.edizioa)

Arduraduna: Cristian Fernández Barreras
Hizlariak: Emergentziak Osakidetza
Data: Otsailak 17 (arratsaldez) /Otsailak 20
(goizez)
E.J. Kredituak: 0.6
Izen-emateak: 23 arratsaldez / 24 goizez
Asistentzia: arratsaldez %100 / goizez %96

CURSO DE TOXICOLOGÍA CLÍNICA

Arduraduna: Jesús Avilés Amat
Hizlariak: Cristina Oria, Manuel Romeu, José
Ángel Redín, Igor Gallastegui, Arantza Aguillo
eta Jesús Avilés.
Data: Otsailak 25 eta 26 (arratsaldez) /Otsailak
26 eta 27 (goizez)
Izen-emateak: 58 arratsaldez / 27 goizez
Asistentzia: %91 arratsaldez / %96 goizez



BERTAN BEHERA GELDITUTAKO FORMAKUNTZA

Administrazio desberdinek egindako gomendioei jarraiki, martxoan ondorengo ikastaroak bertan behera gelditu ziren:

JORNADAS DE INSUFICIENCIA CARDIACA CON FUNCIÓN DEPRIMIDA

Arduraduna: Kardiologiako EAEko eta Nafarroako Erakundea
Hizlariak: Osakidetzako sareko kardiologoak, bihotz-gutxiegitasun taldeko kideak
Data: Martxoak 3 eta 17
Goiz edo arratsaldeaz

BURNOUT EN PROFESIONALES DE ATENCIÓN AL PACIENTE: RESILIENCIA PARA AFRONTARLO

Arduraduna eta hizlaria: Montserrat Pérez, psikologoa eta Coach
Data: Martxoak 4 eta 5 (arratsaldeaz)

ACTUALIZACIÓN EN EL MANEJO DE LA DEPRESIÓN Y LA PREVENCIÓN DEL SUICIDIO DESDE LA ATENCIÓN PRIMARIA

Arduraduna: Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sareko psikiatrak
Hizlariak: Andrea Gabilondo eta Xabier Lertxundi
Data: Martxoak 25 (arratsaldeaz)

IDENTIFICACIÓN Y MANEJO PRECOZ DE DEPRESIÓN Y ANSIEDAD DURANTE EL PERIODO PERINATAL

Arduraduna: Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sareko psikiatrak
Hizlariak: Edurne Zapirain eta Maite Aldabaldetrekua
Data: Apirilak 1 (arratsaldeaz)

ONLINE IKASGELA

AULA VIRTUAL. NOVEDADES MÉDICAS EN TORNO A LA ENFERMEDAD CELIACA

Arduraduna: Gipuzkoako Zeliakoen Erakundea

Hizlaria: Francisco Javier Eizaguirre, Felix Sánchez eta Iñaki Irastorza

Data: Urriak 1 (arratsaldez)

Izen-emateak: 31

Asistentzia: 100%

AULA VIRTUAL. TALLER PLANIFICACIÓN FINANCIERA PERSONAL (I)

Finantza-hezkuntzako EFPA programarekin elkarlanean

Hizlariak: EFPA Española ziurtatu bolondresak

Data: Urriak 10 (arratsaldez)

Izen-emateak: 65

Asistentzia: %74

AULA VIRTUAL. CURSO COMUNICACIÓN POSITIVA Y CON ASERTIVIDAD

Mutual Medica-rekin elkarlanean

Hizlariak: 4Learning taldeko formatzaileak

Data: Urriak 19, 20 eta 21 (arratsaldez)

Izen-ematea: 24

Asistentzia: %75

AULA VIRTUAL. TALLER PLANIFICACIÓN FINANCIERA PERSONAL (II)

Finantza-hezkuntzako EFPA programarekin elkarlanean

Hizlariak: EFPA Española ziurtatu bolondresak

Data: Urriak 26

(Arratsaldez)

Izen-emateak: 61

Asistentzia: %64

AULA VIRTUAL. CURSO DE INTELIGENCIA EMOCIONAL

Mutual Medica-rekin elkarlanean

Hizlariak: 4Learning taldeko formatzaileak

Data: Urriak 26, 27 eta 28

(Arratsaldez)

Izen-emateak: 24

Asistentzia: %71

AULA VIRTUAL. TALLER PLANIFICANDO NUESTRAS INVERSIONES

Finantza-hezkuntzako EFPA

programarekin elkarlanean

Hizlariak: EFPA Española ziurtatu bolondresak

Data: Azaroak 2

(Arratsaldez)

Izen-emateak: 59

Asistentzia: %58

AULA VIRTUAL. CURSO DE GESTIÓN DE PRIORIDADES

Mutual Medica-rekin elkarlanean

Hizlariak: 4Learning taldeko formatzaileak

Data: Azaroak 16, 17 eta 18

(arratsaldez)

Izen-emateak: 23

Asistentzia: %70

AULA VIRTUAL. PSORIASIS Y CONSULTAS MÁS FRECUENTES EN PATOLOGÍA DERMATOLÓGICA EN ATENCIÓN PRIMARIA

Leo Pharma-rekin elkarlanean

Hizlariak: Patricia Eguino eta Peru

Urigoitia

Data: Azaroak 24

(arratsaldez)

Izen-emateak: 94

Asistentzia: %98



ONLINE IKASGELA - TUTOREAK

BURNOUT EN PROFESIONALES DE ATENCIÓN AL PACIENTE: RESILIENCIA PARA AFRONTARLO

BERTAN BEHERA IZEN-EMATE GUTXI JASOTZEAGATIK

Arduradun eta hizlaria:

Montserrat Pérez, psikologoa eta coach

Data: Azaroak 18 eta 19

Arratsaldez

Izen-emateak: 6



IKERKETARAKO BEKAK

Ikerketa bultzatu eta ahalbidetzeko asmoz, COMGI Fundazioak Biodonostia Institutua-rekin akordioa du aspalditik. Horri esker, urtero lanaldiaren erdia ordaintzen zaie bi sendagileei, denbora hori ikerketa proiektuetara bideratu dezaten.

Aurten, pandemia egoera dela eta, ez da halako bekarik eman eta 2021erako gorde dira eman ez diren biak.

biodonostia

osasun ikerketa institutua
instituto de investigación sanitaria



FUNDAZIOA SARIAK

Urtero bezala, formakuntzan, ikerketan eta dibulgazioan sendagileek egiten duten lana baloratzeko sariak banatu ditu Gipuzkoako Sendagileen Elkargoko Fundazioak.

2020an ezin izan da sari banaketa ohitura den bezala BAME berrien ongetorrian egin, ez baita ekitaldirik egin, baina saritu bakoitzak Elkargoan jaso du diploma eta sari ekonomikoa Elkargoko eta Fundazioko presidenteen eskutik: Manuel García Bengoechea eta Iñaki Eizaguirre, hurrenez hurren.

2020ko sarituak ondorengoak izan dira:



Dra. Nerea Borda Arrizabalaga

IGNACIO MARIA BARRIOLA DK. SARIA, DOKTOREGO-TESI ONENARENTZAT

Lana: Pronóstico a largo plazo de pacientes con colitis isquémica.

Saritua: Nerea Borda Arrizabalaga

PILAR LOIS DOKTOREA SARIA, ALDIZKARI MEDIKO BATEAN ARGITARATUTAKO ARTIKULU ZIENTIFIKO ONENARENTZAT

Lana: Prophylactic hipec in PT4 colon tumors. Proactive approach or overtreatment?

Saritua: Nerea Borda Arrizabalaga



Dr. Ignacio Aguirre Allende

GARBIÑE OCHOA DOKTOREA SARIA, BARNEKO MEDIKU EGOILIARREK AURKEZTUTAKO POSTER EDO AHOZKO KOMUNIKAZIO ONENARENTZAT

Lana: Estudio IREST: La Irrigación Transanal Mecánica y La Estimulación Percutánea del Nervio Tibial Posterior como Tratamiento del Síndrome de Resección Anterior Mayor: Ensayo Clínico Aleatorizado.

Saritua: Ignacio Aguirre Allende



Dra. Laura Caveró Barreras

MIGUEL ECHENIQUE DK. SARIA, UNIBERTSITATEKO IKASKETA ESPEDIENTE ONENARENTZAT

Saritua: Laura Caveró Barreras



Dra. Maitane Alonso Sáenz del Burgo

JOSE BEGIRISTAIN DOKTOREA SARIA, EUSKARAZ AURKEZTUTAKO GRADU AMAIERAKO LAN ONENARI

Lana: Petrosektomia subtotala kolesteatoma-ren tratamendurako: 2008-2018 arteko ikerketa erretrospektiboa duon.

Saritua: Maitane Alonso Sáenz del Burgo



1. Abay Nilo azul, asociación para el desarrollo de Etiopía.
2. Fundación Vicente Ferrer.
3. Ojos del mundo / Munduko begiek.



LANKIDETZA BULEGOA

20.000 euroko diru-laguntzak banatu dira aurten Fundazioko Lankidetzak bulegotik, el-kargokideek aurkeztutako lankidetzak eta garape-nerako proiektu desberdinen artean.

Etiopia, India, Dominikar Errepublikak, Arge-lia, Mali edo Senegalaren garatutako diru laguntza jaso duten 6 proiektuak. Horietan guztietan sen-dagilek parte hartzen dute helburu berberare-kin: bertako herritarren osasuna hobetzea.

Pandemia egoera dela eta, ezin izan da Lan-kidetzak Eguna ospatu Elkargoan. Ekitaldi hone-tan laguntzak banatzeaz gain proiektuak eta era-kundeak gertuagotik ezagutzeko aukera dago. Egoera dela eta, proiektu bakoitzeko ordezkaria-ri harrera egin zioten Iñaki Eizagirre Fundazioko presidenteak eta Carmen Solorzano lankidetzak-o batzordekideak, diploma eta diru-laguntza emateko.

2020an dirua jaso duten proiektuak hauek dira:

Erakundea/ GKE: **ABAY NILO AZUL, ASOCIACIÓN PARA EL DESARROLLO DE ETIOPÍA**

- **Proiektua:** Control de salud y asistencia san-itaria de los preescolares de la escuela infantil de Gaba Kemisa en Etiopía.
- **Arduraduna:** Inge Etxabe Azkue
- **Emandako laguntza:** 2.500€

Erakundea/ GKE: **FUNDACIÓN VICENTE FERRER**

- **Proiektua:** Emergencia Covid19. Garantizada la seguridad alimentaria y la prevención ante la pandemia Covid19 de la población en situación de vulnerabilidad en los distritos de Anantapur y Kurnool, Andhra Pradesh en la India.
- **Arduraduna:** M. Dolores Baixas de Ros
- **Emandako laguntza:** 4.000€



Abay Nilo azul, asociación para el desarrollo de Etiopía.



Fundación Vicente Ferrer.



Fundación voz para sordos, alianza para el desarrollo y la integración social.



Fundación mundubat - Mundubat fundazioa (D.O.A.).



Fundación Vicente Ferrer.

Erakundea/ GKE: **FUNDACIÓN VOZ PARA SORDOS, ALIANZA PARA EL DESARROLLO Y LA INTEGRACIÓN SOCIAL**

- **Proiektua:** Proyecto piloto para instaurar un programa de detección de hipoacusia infantil en República Dominicana.
- **Arduraduna:** Frank Alberto Betances Reinoso
- **Emandako laguntza:** 4.000€

Erakundea/ GKE: **FUNDACIÓN MUNDUBAT - MUNDUBAT FUNDAZIOA (D.O.A.)**

- **Proiektua:** Apoyo a la estructura sanitaria en atención primaria de la Wilaya de Auserd, campamentos de refugiados saharauis de Tindouf en Argelia.
- **Arduraduna:** Jose Luis Paulín Seijas
- **Emandako laguntza:** 3.000€

Erakundea/ GKE: **O.D.M / MUNDUKO BEGIAK**

- **Proiektua:** Refuerzo de las capacidades en salud ocular de los recursos humanos sanitarios de la región de Mopti en Mali.
- **Arduraduna:** Nagore Arbelaiz Pascual
- **Emandako laguntza:** 4.000€

Erakundea/ GKE: **KELLE HERRIALDEAN OSASUNA SUSTATZEKO ELKARTEA**

- **Proiektua:** Promoción de la salud en la comarca de Kelle en Senegal.
- **Arduraduna:** Juan Querejeta Usabiaga
- **Emandako laguntza:** 3.000€

ETORKIZUNERAKO ERRONKAK

Azken urteetan Fundazioak biderkatu egin du elkargokideei zuzendutako formakuntzaren eskaintza. Urte bitxi honen ondoren, Fundazioaren helburua da ahal bezain laster formakuntza presentziala martxan jartzea, beti ere, ondorengo proiektu eta erronka berriei ere eutsiz:

- **Online ikasgelak indartzea**, gipuzkoar elkargokide gehiagorengana iristeko.
- **Tailer presentzialak berreskuratzea**, praktika eskatzen duten formakuntza edo gaurkotzeak ahalbidetzeko.
- **Formakuntza transbertsala bultzatzea**, medikuntzarekin zuzenean lotuta ez dauden beste askotariko gai interesgarriei buruzko formakuntza eskainiz, besteak beste, gaixoaren eta sendagilearen arteko harremana hobetuko dutenak.
- **Online formakuntza eskaintzea**, elkargokideek malgutasun gehiago izan dezaten formakuntza betetzeko.
- **Osasun Heziketarako Ikasgela berreskuratzea**, gizarteari orokorrean medikuntza eta osasun gaiak helarazteko.



Fundazioa

GIPUZKOAKO SENDAGILEEN ELKARGO OFIZIALA
COLEGIO OFICIAL DE MÉDICOS DE GIPUZKOA